



AMEZKETAKO UDALA

Amezketako Udalbatzak, bi mila eta hamazortziko otsailaren 1ean egin zuen Ez Ohiko Osoko Bilkuran, honako erabakia hartu zuen:

PLAN OROKORRAREN FORMULAZIOA ETA HERRITARREN PARTE-HARTZE PROGRAMAREN ONESPENA

Amezketako udalerrian indarrean diren Planeamenduko Arau Subsidiarioak 2006ko azaroaren 14an onartu zituen Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak (2007ko urtarrilaren 17ko GAO, 12. zenbakia), hau da, duela 11 urte baino gehiago.

Horregatik, indarreko Arau Subsidiarioak gaindituak izan dira bai errealitatearengatik, bai egun indarrean dagoen lurralde plangintza zein hirigintza araudiarengatik.

Arau Subsidiarioen Testu Bateginak berak berrikuspena egiteko baldintzak finkatzen ditu 4. artikuluan, "Udalbatzak legezketasuna, legedi aldaketak, lurralde antolaketa eta abar bezalako arrazoiengatik nahiz aukera / beharra bezalako arrazoiengatik har ditzakeen Arau Ordezkatzaileak berrikusteko ekimenak alde batera utzita".

Zentzu horretan, Arauek bere indarraldirako aurreikusten duten biztanle kopurua 1.111 pertsonakoa da. Egun, Amezketa biztanle kopurua 939 pertsonakoa da, hau da, arauak onartu zirenean baino gutxiago eta haien aurreikuspenetik oso urruti.

Bestalde, egungo Arauek aurreikusten duten bizitegi berrien programa 190 etxebizitzakoa da. Bada, emandako eraikuntza-lizentziak 21 inguru izan dira, hau da, aurreikusitakoaren %11 inguru.

Azkenik, 2001. urtean etxebizitza hutsen kopurua 116 ingurukoa zen eta 2011. urtean 92 ingurukoa. Egun, aldiz, 135 etxebizitza huts daude udalerrian. Hau da, azken datuen arabera etxebizitza hutsen kopurua nahiko egonkorra da edo hazten doa piskanaka.

Ondorioz, esan genezake ez direla betetzen Arauek aurreikusten dituzten berrikuspenerako baldintza objetiboak.

Hala ere, aurreikuspenei hain modu apalean erantzun izanak egoera sozio-ekonomikoaren muturreko bilakaera ere adieraz dezake, eta ondorioz, indarrean diren Arauek egungo egoerari erantzuteko duten gaitasun eskasa. Gainera, aintzat hartu behar da hirigintzako zein lurralde antolaketako arautegi orokorrak aldaketa nabarmenak jasan dituela Arauen indarraldian zehar.

Tartean nabarmentzekoa da EAeko 2/2006 Legea, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa, indarraldi bete betean dagoela, eta Amezketako udalerriko plangintza orokorra aipatu Legeren xedapenetara behin betikoz egokitzeko beharra agerikoa. Are gehiago, beronen behin betiko onarpena 2021eko irailaren 20a baino lehen gauzatu behar dela aintzat hartuz gero, 2/2006 Legeak, ekainaren 30ekoa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa, bere 2. xedapen iragankorrean, eta 2/2014 Legeak, urriaren 2koa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea aldatzekoa, galdatzen dutenaren arabera.

Hori dela eta, uka ezina da Amezketako udalerrian indarrean dagoen hirigintza planeamendu orokorra berrikusteko garaia iritsi dela.

Horrela, EAeko Lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legean Udal Plan Orokorra aurreikusten da planeamendu orokorraren figura gisa, eta Lege honen 90. eta 108. artikuluetan jasotakoa kontuan hartzen da.

Informazio Batzorde Orokorrak, aldeko onarpena eman dio proposamen honi.

Horren aurrean, aurretik bere edukiaren inguruan azalpenak emanda eta eztabaida izanda, Udalbatzak ondorengo erabaki du ahobatez:

ERABAKIA

Lehena: Amezketako Udalerrriaren Plan Orokorra egitea eta beronen idazketa erabakitzea.

Bigarrena: Babes zibil, ingurugiro, kultur ondare eta natur ingurunean eskumenak dituzten Eusko Jaurlaritzaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren organoei bere ordenamenduagatik errespetatuak izan behar duten ingurumenaren, kultur ondarearen eta natur ingurunearen baldintzatzaileen eta egon litezkeen arriskuen berri eskatzea. Bi hilabete gaindituko ez dituen epearen barruan emango da, behar besteko justifikazio tekniko eta juridikoekin batera.

Hirugarrena: Espedientean jasotzen den Hiritarren Parte-hartze Programa onartzea.

Laugarrena: Alkateari ahalmena ematea, Hasierako Onespenaren arteko izapideetan aurrera egin dezan.